



ikastolak



ARANGOITI IKASTOLA IRUNBERRI



Natura Zaintzaileen taldeak ingurua garbitzeko tartean hartu zuen.

Zaborretan gelditu ez zen ipuina

NATURA ETA INGURUGIROA ZAINTEKO IDEIA ANDANA BILDU DITUGU ARANGOITI IKASTOLAKO IKASLEOK

Testua eta argazkia Arangoiti Ikastola

Behin batean, herri txiki bateko ikastola txiki batera Rafa izeneko gizon bat etorri zen eta jakinduria handiz harek azaldu zuen ikastola batzuetan irteerak, bideoklipak eta beste ekintza asko egiten ari zirela natura zaintzeko...

Ondoren, guk zer pentsatzen genuen eta zer egingo genukeen gal-

detu zigun.

Taldeka jarri ginen, hiru talde, hainbat partaide... eta ideia desberdinak sortu ziren natura zaintzeko, kotxeen kutsadura gutxitzeko eta berrera-biltzeko zaborretarako uzten ditugun materialen inguruan.

Gure ideia ezberdinen artean sortu ziren taldeak. Natura zaintzaileak:

Noa B, Luna, Naroa, Adrian, Udane, Noa A eta Araitx. Kutsadura gutxitzaileak: Aaron, Edurne, Orhi, Oihan, Maika, Jon, Natalia eta Igor. Berrera-biltzaileak berriz, Jone, Gorka, Haizea, Nahia eta Oiher.

Eta horrela, oharkabea, CONFINT izeneko abentura edo beno, hobe esanda, hiru abentura txikietan sar-

tuta ginen eta... Ea argitzen dugun nolakoak izan ziren eta diren abentura hauek.

NATURA ZAINTEKOA Lunak, gure taldekideak, mundua hobetu nahi du nahiz eta pertsona bakar batek ezin duela ezer egin pentsatzen duen. Elkarrekin ahal izango dugula dio. Ongi laburtu du guk pentsatzen duguna:

"Planeta hobetu ahal da, momentu honetan oso kutsatuta dagoelako. Kutsadura horrek atmosfera apurtzen du, behar ez diren eguzki izpiak sartzen dira eta klima aldaketan eragiten dute. Horretaz gain, arnasten duguna ez da ona eta gure osasunean eragiten du eta honek gaixotasunak eragiten ditu". Eta zer egin dugu hori gelditzeko? Gure erabakia... Zaborrik lurrera ez botatzea eta garbiketa txangoak egitea.

Lehenengo txangoa Zaraitzu ibaiaren ondoan, Sielba izeneko aisialdi leku ederrera egin genuen, ikastolatik gertu, ibaiaren inguruan, lehen hezkun-

tzako ikasleak bildu eta ibai ingurua garbitu genuen taldeka. Uste ez genuen 30 kg inguru zabor bildu genituen.

Maiatzaren 16an, jai ondorengo egunean herrian zehar ibili ginen. Ohartu ginen nahiz eta udaleko garbitasun zerbitzuak lan asko egin, jaietan zabor asko eta asko sortzen dugula eta ezin izan genion herriari buelta osoa eman.

Ekainan arrolara joanen gara gura-soekin batera ikastolak antolatzen dituen mendi irteeretako bat aprobetxatuz.

KUTSADURA GUTXITZAILEAK Kutsadura gutxitzeko bi lan nagusi jarri genizkion gure buruari, bi lan eta asmo bakarra: ohartzea nola kutsatzen dugun eta, aldi berean, oso modu errazean nola saihestu dezakegun kutsadura.

Alde batetik, ikerketa egin genuen matematikako saioetan ikastolako karbono dioxido aztarna zenbatekoa den jakiteko; eta, bestetik, ikastolako eta herriko hainbat lekutan kotxearen erabilera txikitzeko hainbat kartel jarri genituen.

Ikerketa eta lanaren ondorio izan da gero eta jende gehiago, eguraldi ona egiten duenean behinik behin, bizikletaz mugitzen dela eta ikerketaren ondorioz ere, ohartu gara ikastetxeko argiak eta bero iturriak zaintzen baditugu inguruan dugun eragin kutsakorra txikitzen dela. Bide luzea egiteko dago hala ere eta hau lehenengo pausoa besterik ez da izan.

BERRERABILITZAILEAK Lan erraza izan zen hasieran, etxean botatzen ditugun briak eta plastikozko tamaina ezberdineko ontziak bildu genituen gogoan genuena sortzeko. Bilketa erraza izan zen, ondorengo saioak moldatzea berriz, HH zein LH-ko kideekin gehiago kostatu zitzaigun. Hala ere, erabilera ezberdinetako ontzi ederrak gelditu zitzaizkigun sormena erakutsiz. Nahiz eta asko ez izan ikastolan hainbat saio egin ditugu eta egia esan nekagarria ere izan da.

Aurrekoan laborategian bildu ginen, taldeka, gure lanak zer nola joan diren komentatzeko, Iruñeko aurkezpenerrako zer testu egin behar genituen adosteko eta Iruñean egingo den Nafarroako saiora azalpenak ematera zein pertsona joango diren hautatzeko. Sei pertsona aukeratu genituen eta denon artean prestatuko ditugu azalpenak.


Ekainaren 5a azkar helduko da eta ziur gaude egun horretan oso ongi pasako dugula beste ikasle batzuekin batera. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Nortzuk osatzen dute gure ikastolako Natura Zaintzaileen taldea?
2. Zein bi ondorio nagusi ateratzen dituzten Kutsadura Gutxitzaileak?
3. Noiz egingen da aurkezpena Iruñean? Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Yeray García (Ibaialde Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Eider Urrutia (Baztan Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia): Amaia Lizardi (Baztan Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.